


BASERRIAN BIZI NAIZ



Baserrian bizi naiz aitona eta izebarekin. Aitonak **soroak** lantzen ditu eta izebak abereak zaintzen ditu. Nik eskolatik atera eta gero **laguntzen** dut. Orain traktore gorria gidatzen ikasten ari naiz. Dibertigarria da!

Baina aitona gaixotu da. Hilabetea pasa behar du ohean. Izebak soroak landu ahal ditu traktorearekin, **gidabaimena** du eta. Nik ez dut gidabaimenik. Horregatik behiak eta oiloak zaindu behar ditut.

Handitan herrian bizi nahi dut eta baserritarra izan nahi dut. Eta traktorea nik **neuk** gobernatuko dut.

soroak:campos **lagundu**:ayudar **gidabaimen**:permiso conducir **handitan**:de mayor **neuk**:yo misma

OSATU ESALDIAK

- Neska protagonista batean bizi da.
- Baserrian abereak dituzte: behiak, eta txakurra.
- Neska protagonistari gidatzea gustatzen zaio. Ikasten ari da.
- Normalean lantzen ditu soroak baina orain ezin du, gaixotu da eta.
- Orain aitona ez du lanik egiten; izebak landu behar ditu eta neska protagonistak abereak behar ditu.
- Protagonistak handitan izan du.

ERANTZUN

1. Zer izan nahi duzu handitan? Idatzi hiru lanbide.
2. Zein da zure gurasoen lanbidea? Eta zure aitona-amonena?

